

Begirada samurtua

Terneziaz begiratzen zaio haurrari oso haur denean. Eta zuka egiten zaio gure usadioan.

Koxkortzen denean hasten gatzakio hika, eta bere buruaren jabe egiten hasia dagoela sumatzearekin galtzen du ternezia gure begiradak. Terneziaz begiratzen zaio edadetu edadetuari. Gorputzak ere urritzera egiten duen adinean hasten gatzakio ordura arte, lotsarengatik edo, ukatzen genizkion hitzeko zain igurtziko maitte-maitteak egiten. Gure artean «gogorra» izate hori, gizonezkoak batik bat, oso ondo ikusia izan da oraintsu arte, eta ternezia adierazpenak bizitzaren bi muturretako jende klase horrentzat mugatzen ginen. Sentimenduetan eta ideietan eragile batzuk izan dira ordea, emakumezkoak nagusiki, joera zaharrak iraultzera bultzatu gaituztenak.

Asko irabazi dugu terneziaz, haurren eta zaharregiana ez ezik



PLAZATIK
Andonj Egaña

gainerakoengana hurbiltzeko bali handia duela jabetu ginenetik. Pertsonala politiko dela ikasiz joan gara, gainera, eta begirada samurtuak politikoki ere emaitza onak eman ditzakeela sinesten hasiak gaude itxura denez. Ternezia sumatzen da, ternezia politikoa hitzaren zentzurik onenean, Julien Mendoza Errenteriako alkatearen jarreraren. Eta ternezia harrera ekitaldira azaltzea onartu zuten biktima horien jokabidean ere. Duela gutxira arte horrelako samurtasun azalpenek ere alde guztietako mesfidantza baino

ez zuketzen sortuko. Ternezia sentitzen dut Altsasuko atxilotuen amak Bruselan justizia eske ikustean. Babes izaten segitu ahal izateko babes bila joan dira. Ez da in-punitatea eskatzen dutena; ikerketa neutral eta zorrotza baino ez dute galdetzen. Ternezia sortzen du preso dagoenaren egoera irudikatzeak, eta samurtasun begirada are indartsuago pizten da preso hori larriki gaixo dagoena bada. Askotan azaltzen zaigu bertso-plazatan aurrera egin dugun edo ez, gaia. Nik esango nuke, kallean, egin dugula aurrera, samurtuak ikusten dugula lehen ikusiezina zena eta ezinikusi gutxiago ikusten dela garai joanetan baino. Legegileak eta lege horiek interpretatzea tokatzen zaienak dabil-tza ternezia zer den ulertu ezinik. Norbaitek esango du ezinezko zerbaitek eskatzen ari naizela...

Hitz batzuk edozertarako balio duten garaiotan komeniko da zehaztea. Ternezia ez da empatia; ez da bestearen larrazalean jartzeko

ahalegina eta gaitasuna. Ternezia ez da autokritika; ez da zerbaitetan nahita edo nahigabe oker jokatu izanaren onarpena. Ez da barkamen eskea... Terneziaz gehiago du norbere buruaren ezagutzatik. Samurtuak bihurtzen da bat gaitzesten dituen ezaugarri horiek beti hain urrutituz ez direla egon onartzen duen unetik. Homofobo bat ezagutzen dut nire baitan, denboraren eta heziketaren poderioz dotzatzen ikasi uste dudana; indarkeriazale bat ezagutzen dut nire baitan, azalera ez dadin ahalegin du arren; ezagutzen dut nire bai-

tan lapur txiki bat; badakit badela iruzurgile bat nire barnean... Eta aipatzen ari naizenak ez du federekin zerikusirik ezagutzarekin baino. Ezagutu ahala hasten zara ezagutzen hain desberdina dirudien hori oso dela zure antzekoa. Begirada samurtua ez da hori baino: zeure buruari marra gorriak non jarri ikasteko ahaleginaren ondorioa. Autoerregulazio bat, azken batean. Eta horrexegatik izan behar lukete legegileek lehenak begirada samurtzearen ariketa probatu eta txalotzerako orduan. Lana arinduko genieke.

«Ternezia begiradak politikoki ere emaitza onak eman ditzake» idatzi dut arestian, ustez hitzak neurritu. Propio ez dut jarri «ternezia begiradak politikan ere emaitza onak eman ditzake», politikan emaitza onak lekurake-ela jakitera -hauteskunderetan boto kopuru handiagoa, alegia-buru-belarri hasiko baillrateke politikari profesionalak ternezia-ren gorantz egiten eta hitza hustuz joango litzateke, talante edo tolerantzia-rekin gertatu zen gisan. Erakundeetako ternezia eskatzen dut, ez ternezia erakundetua.

**Erakundeetako
ternezia eskatzen
dut, ez ternezia
erakundetua**

Ai, Txillardegia, zer egin huen horrela tratatua izateko?

Dani Goñi

Txillardegia Liburutegia kultur ekimenaren izenean

Bai, Jose Luis, zer egin huen horrela tratatua izateko hire herrian bertan, Donostian? -Zeregin nian? Bada, Euskal Herria maitatu. -Hiri dagokianez, gauzak ez dituk asko aldatu azken bost urte hauetan. Hagoen tokian, inon baldin bahago, ez duk gauza handirik egiterik izango. Beraz, hemendik aurrera zerbait egin dezakeenari zuzenduko natzako: Euskal Herriari, eta bereziki, euskal herritar donostiarrari.

Duela lau urte Txillardegiren heriotzaren lehen urteurrenarekin Donostiako 17 idazlek Udala Liburutegiari Txillardegia izena jar ziezaioten eskatu zuten. Arrazoak garbirik eman gabe PP, PSE eta EAJ alderdiek ezetza eman zioten proposamenari. Bilduk bakarrik babestu zuen proposamena. [...]

Urtarrilean, Txillardegia Liburutegiaren Kultur Ekimenaren izenean bilera eskaera lizatu genien alkateari eta udaleko indar

politiko guztiei gaieren inguruan hitz egiteko. Aurretik 17 idazlek egindako eskaera bera egin genuen, Udala Liburutegiari Txillardegia izena jartzea. Oraingoan, eskaera babestuz, Donostia 2016ren barruan antolatutako Europako Hizkuntza Aniztasunaren Foroan, Donostiako Protokoloa aurkeztu zen egunean, berrehundik gora aditu, politikari, sindikalista eta eragile sozialak kideen sinadura bildu genituen.

Azken urteotan gauza asko gertatu dira Euskal Herrian. Donostian beste alderdi bat dago buru udalean, alkate berria daukagu. Esperantzari leio bat zabaldu omen diote, abesten zuten Oskarrik. Gu ere esperantzari leio bat zabaldu eta alkatearen eta indar politikoaren deien zain geratu ginen.

Laster jaso genuen Bilduko deia, eskaera babesten zutela adieraziz. Erantzun genien EAJ agintean dagoen alderdia izanik egokiagoa iruditzen zitzaigula halekin egin beharreko bilera lehenestea.

Martxoaren 15ean bildu ginen Eneko Goia alkatearekin eta Miren Azkaraterekin. Xabier Euskitze ere haiekin zegoen kultur aholkulari gisa. Gure aldetik Ifaki Alegria (UEUko lehendakaria), Josu Tellabide eta ni neu izan ginen bileran. Garbi adierazi ziguten hasieratik ezinezkoa izango zela eki-

menak aurrera egitea. Ez geniola, bada, liburutegia izaten segituko duen zalantzan dagoen liburutegiari Txillardegia izena jarriko, gero, desagertzeko. Gainera, horrelako izendapen batek kontsentsu zabal behar duela eta halakorik ez dagoela, PSE ez zutela ikusten halako proposamen bat babesten. PPkoak zer esanik ez. Guk lortuz gero sozialisten aldeko jarrera edo, gutxienean, ez kontrako...

Desilusioi usai bat erten omen da leihotik... Jarratzen zuten Oskar biren abestiak. Halaxe ateratu ginen gu bileratik, desilusioak hartuta. Txillardegiren lanez eta merezimenduez zalantzarik ez. Ateitik barrura aitortzen duguzki, baina gero, aitorza hori publiko egiteko garailan, traba ugari eta gogutzki.

PSEkoekin egin beharreko bileran jarri behar genuen gure esperantza. Laburtuz, email bidezko haien erantzuna: arretaz irakurri dugu zuten eskaera, eta, gure taldean aztertu ondoren, zera erabaki dugu: udalera bada horrelako gaiak erabakitzea dagoen organo eta bertan emango dugu gure iritzia.

Erantzun horrek errespetu falta ikaragarria erakusten du. Babes zabal duen eskaeraren aurrean, euren iritzia dena delakoa

izanda ere, herritarrek entzuteko hartu nahi ez izatea ere... Adierazgarria! Irabazikoekin ere egin genuen bilera, eta arretaz entzun zuten gure eskaera. Harremanetan jarraitzekotan geratu ginen.

Bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren eta Jakin Fundazioaren arteko hitzarmenari esker, Txillardegiren lan guztia digitalizatu eta sareko atari bereziarekin herritar guztien eskura jarri berri dute. Gainera, sareko atariak gain, Txillardegiren obra hedatzeko liburu bilduma eta ikus-entzunezkoak osatuko ditu. Aurtengo Literaturarian, Zarautzen, Txillardegia, modernitatearen isla erakusketa antolatuta Txillardegiren argazkiak eta liburuen azalpen bitartez, idazlearen modernitatea literaturan nola islatu zen azaltzen zuten erakusketak. Horrez gain, Elsa Scheelen Txillardegiren lanaren irakurketa dramatizatu egin zen egitarauaren barnean.

Beharrezkoa genuen euskaltzale guztioi, eta, bereziki, eskaera sinatu zutenen guztioi, Txillardegia Liburutegia ekimena zertan zen azaltzea. Jarratuko dugu lanean Txillardegiren izena, izana eta euskal kultura eta herriarentzat izan duen garrantzia ezagutua eta aitortua izan dadin, Donostian eta baita Donostiatik kanpo ere.